

Tanta Samantha



Tanta Samantha New Yorken bizi da.

New York hiria oso haundia da. Hango etxeak zeruraino ailegaten dira, taxiak horiz pintatuak dira eta kolore guzietako jendea badago.



New Yorken munduko hizkuntza guziak entzun daitezke, baita munduko sukalde guzietako usainak usaindu ere. Tanta Samantha pozik joaten da eskolara. Bere eskolaren izena Nazio Batuak da. Hantxe ezagutu ditu bisitan joan diren diren bertze 4 ikasle. Fermintxo, Iruñekoa; Uma, Indiakoa; Jairo, Kolonbiakoa; eta Raounda, Txadekoa. Tanta Samanthak eta bere lagunek misio bat daukate: lortu behar dute munduko pertsona guziek ura eta saneamendua izatea 2030 urterako.

- Zeerrrr???

Fermintxok ez du deus ulertzen.

- Begira, ura nonahi dago eta gainera dohainik da. Hau bai misio aspergarria eman digutena!

Umak eta Raoundak azaldu diote bere herrietan, aunitzetan, urik gabe gelditzen direla. Eta, batzuetan, kilometro aunitz ibili behar izaten dutela ura ekartzeko. Ontzi pisudunetan eramaten dute ura, eta haurren eta emakumeen lana da, bereziki. Badira familiak ura zikina





bertzerik hartzen ez dutenak; edo ura erostera behartuak daudenak. Eta oso prezio garestian, gainera. Bertze gauzak erosteko ez zaie sosik gelditzen, eta gosea ere pasatzen dute maiz.

Tanta Samantha martxan jarri da.

-Goazen, ez dugu denbora gehiago galduko. Hartuko dugu txalupa hau eta beteko dugu gure misioa: 6. helburua.

Denak kontent daude. Erreka beheiti arraunean hasi orduko, abesten ari dira.

Baina Jairo pentsakor dago.

-Baina zer ote da Samanthak aipatutako “neamendua”? Ura eta mugimendua denendako? Zeinen ongiiii! Zer misio dibertigarria! Niri asko gustatzen zait mugimendua, batez ere dantzatzen egiten ditugun mugimenduak.

Tanta Samanthak orduan azaldu dio zer den saneamendua:

-Kaka, pisa edo dutxa erabiltzen dugunean ura joaten den tokia. Tutuak dira eta oso garrantzitsuak dira. Saneamendurik ez dagoenean pertsonak eritzen ahal dira, eta ñiñi eta neska-mutil aunitz hiltzen ahal dira.

Umak ere azaldu nahi du:

-Bai, bai, nire herrian neskatxo batzuk ebolaz eritu ziren eta, ordutik, herriko amatxo guziak biltzen dira ortzilaretan, saneamendua nola egin pentsatzeko.



Raoundak ere gehitu du:

-Nire herrian ere bai.

Fermintxo oroitzen da.

-Ah bai, oroitzen naiz. Egun batean Arazuriko Hondakin Uren Araztegira joan ginen bisitan, eta oso guaya izan zen. Erakutsi zizkiguten hiri osoaren azpitik dauden tutuen mapak. Eta erran ziguten aunitz zaintzeko ura, eta nolana ez xahutzeko; iturria ongi ixteko eta inoiz ez botatzeko toallarik komunetik beheiti.



Fermintxok, Jairok, Umak eta Raoundak misio garrantzitsua daukate. 6. helburuaren taldea dira eta, Samantharekin batera, lortuko dute munduko pertsona guziak ura eta saneamendua izatea 2030 urterako.

Lortuko dute. Amaiera arte iritsiko dira.



Tanta Samantha
ALBOAN-2019

Egilea:
Alizia Aleman Arrastio

Marraskia:
Ekilikua

Diseinua:
Horixe Diseño

Finantzazioa:
Iruñeko
Udala



ALBOAN

DNS - Jentzu - Fundazioa



Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala